

## Bestelako Xedapenak

### ENPLEGU ETA GIZARTE GAJETAKO SAILA

2912

AGINDUA, 2010eko maiatzaren 19koa, Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuarena; honen bitartez onartzen dira erakunde publikoei esku-hartze sozialaren esparruan programa, proiektu eta jarduerarako laguntza tekniko edo administratiboa emateko eta horiek garatzeko laguntzetarako oinarriak, eta laguntza horietarako deialdia egiten da 2010. urterako.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Sailak sortu, kendu eta aldatzeari, eta Sail horien eginkizunak eta jardun-arloak zehazteari buruzko lehendakariaren maiatzaren 8ko 4/2009 Dekretuak gizarte-zerbitzuen arloa identifikatzen du Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailari dagozkion arloetako bat bezala, eskumenei dagokienez.

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak gizarte-zerbitzuetan egiten den jarduerari deitzen dio gizarte esku-hartze, eta adierazten du autonomia pertsonala sustatzera eta babestera eta pertsona, familia eta talde guztien integrazio komunitaria bideratuta dagoela, sustapen-, prebentzio-, babes- eta laguntza-eginkizuna garatuta, batez ere pertsonalak eta harremanezkoak diren prestazio eta zerbitzuen bidez.

Esku-hartze soziala sektore-esparru handietako bat da ongizatearen aldeko ekintzaren barruan, hezkuntza-alorreko esku-hartzeari, osasun-alorreko esku-hartzeari, enpleguari buruzko esku-hartzeari, etxebizitzarekin lotutako esku-hartzeari eta abarri dagozkien ekintzekin batera. Izaera misto, koordinatu edo integratuko esku-hartzeak, hala nola gizarte- eta hezkuntza-alorrekoak, gizarte- eta osasun-alorrekoak, gizarte- eta lan-alorrekoak edo gizarte- eta bizileku-alorrekoak, esku-hartze sozialaren modutzat har daitezke.

Bestalde, gizarte-zerbitzuak esku-hartze soziala egiteko esparru pribilegiatua badira ere, zerbitzu horietatik haratago ere joan daiteke esku-hartze hori, batez ere zeharkako esparru edo gai jakin batzuetara proiektatzen bada, esate baterako, honako hauetara:

a) Gizarteratzea; horren arau-erreferentzia nagusia Gizarteratzeko eta Diru-sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legea da.

b) Droga-mendetasunak; horien arau-erreferentzia ekainaren 25eko 18/1998 Legea da, drogamenpekota-

## Otras Disposiciones

### DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y ASUNTOS SOCIALES

2912

ORDEN de 19 de mayo de 2010, de la Consejera de Empleo y Asuntos Sociales, por la que se aprueban las bases para la concesión de las ayudas económicas para el apoyo técnico o administrativo y el desarrollo de programas, proyectos o actividades por parte de instituciones públicas en el ámbito de la intervención social y se efectúa la convocatoria de las mismas para el año 2010.

El Decreto 4/2009, de 8 de mayo, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos identifica el área de los servicios sociales como una de las que corresponden, competencialmente, al Departamento de Empleo y Asuntos Sociales.

La Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales denomina intervención social a la actividad que se realiza en los servicios sociales, señalando que se orienta a la promoción y protección de la autonomía personal y la integración comunitaria en todas las personas, familias y grupos, desarrollando una función promotora, preventiva, protectora y asistencial, a través de prestaciones y servicios de naturaleza fundamentalmente personal y relacional.

La intervención social constituye uno de los grandes ámbitos sectoriales dentro de la acción a favor del bienestar, junto a los correspondientes a la intervención educativa, la intervención sanitaria, la intervención sobre el empleo, la intervención en relación con la vivienda u otras. Intervenciones de carácter mixto, coordinado o integrado, como la socioeducativa, la sociosanitaria, la sociolaboral o la sociohabitacional, pueden considerarse como formas de intervención social.

Si bien los servicios sociales constituyen un ámbito privilegiado para la realización de la intervención social, ésta también puede ir más allá de dichos servicios, en particular cuando se proyecta a determinados ámbitos o materias de carácter transversal, como es el caso de:

a) La inclusión social, cuya referencia normativa principal es la Ley 18/2008, de 23 de diciembre, para la Garantía de Ingresos y para la Inclusión Social.

b) Las drogodependencias, cuya referencia normativa principal es la Ley 18/1998, de 25 de junio, so-

sunen arloko aurrezaintza, laguntza eta gizarteratzeari buruzkoa.

c) Etorrinen integrazioa eta, oro har, kulturartekotasuna.

Hain zuzen ere, arestian aipatutako zeharkako hiru politika horiei dagokienez, Eusko Jaurlaritzak bestelako erakunde publikoei zuzendutako diru-laguntzen ekintza bereziki handia izan da; udal-esparruan proiektuak garatzea eta hainbat alderdiren (zehazki, gizarteratzea, droga-mendetasunak prebenitzea eta horien kalteak murriztea, eta etorrinen gizarteratzea) zeharkako ikuspegiari arreta berezia ematen dion esku-hartze soziala izatea ahalbidetuko duten errefortzuko langileen edo talde teknikoaren finantzaketarako laguntzen bitartez gauzatu da adierazitako ekintza hori. Diru-laguntzen ekintza hori zirkunstantzia jakin batzuetan justifikatu da bereziki, zehazki, Eusko Jaurlaritzak bere eskumenak gauzatzean sustatu zituen plan eta ekimenen inaktuak plan eta ekimen horiek egikaritzeko lanean inplikaturako erakunde publikoek xurgatzea eta beren gain hartzea zaila denean, epe motzean, behinik behin.

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legea onartzeak funtsezko aurrerabidea ekarri dio Euskal Autonomia Erkidegoko gizarterbitzuen unibertsalizazio-prozesuari eta esku-hartze sozialaren eremuaren ordenazio-prozesuari, eta horretaz gain, testuinguru jakin bat sortzen laguntzen du; testuinguru horretan, diru-laguntzen ekintza handi eta egonkorra -erakunde publiko jakin batzuek beste erakunde publiko batzuen egiturak eta jarduerak finantzatzeko deialdien bitartez gauzatzen da ekintza hori- gero eta okerrago egokitzen da, erreferentziatzeko ereduko erakunde-maila bakoitzak honako ezaugarri hauek dituen neurrian: berezko erantzukizunak eta ekimenak, erantzukizun eta ekimen horiek aurrera eramateko behar besteko finantzaketa, eta jakina, bere egiturak, lanbide-figurak eta jarduerak zehazteko behar beste autonomia, eta zalantzarik gabe, baita kasu bakoitzari dagokion eskumen- eta geografia-eremuan diharduten erakundeei (gizarte-ekintzako hirugarren sektorekoak) zuzendutako diru-laguntzen lan propioa erabakitzea ere.

Era berean, gizarteratzearekin, droga-mendetasunekin edota immigrazioarekin (besteak beste) lotutako zeharkako politikei dagozkien legediak eta planek joera bat dute, batetik, egitura publikoko erakunde bakoitzaren erantzukizunak gero eta argitasun handiagoz identifikatzeko, eta bestetik, elkarlanean berdintasunez aritzeko, gero eta neurri handiagoan; aitzitik, horrek ez du esan nahi zirkunstantzia jakin batzuetan, eta baldintza jakin batzuekin, erakundearen arteko lankidetzak horrek ezin duenik ekarri erakundearen artean funtsak transferitzea.

Nolanahi ere, Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak nahi argi bat du, arestian

bre prevención, asistencia e inserción en materia de drogodependencias.

c) La integración de las personas inmigrantes y, en general, la interculturalidad.

Precisamente en torno a las tres políticas transversales que se acaban de mencionar ha venido siendo especialmente intensa la acción subvencional del Gobierno Vasco dirigida a otras instituciones públicas, singularmente mediante las ayudas para la financiación de personal de refuerzo o equipos técnicos que, en el ámbito municipal, permitan el desarrollo de proyectos y una intervención social especialmente atenta a las perspectivas transversales de la inclusión social, la prevención y reducción de daños de las drogodependencias y la integración de las personas inmigrantes. Dicha acción subvencional se ha justificado especialmente en las circunstancias en las que planes e iniciativas impulsadas por el Gobierno Vasco en el ejercicio de sus competencias tenían un impacto difícil de absorber y asumir, al menos en el corto plazo, por parte de otras instituciones públicas implicadas en la ejecución de dichos planes e iniciativas.

La aprobación de la Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales representa un avance fundamental en el proceso de universalización de los servicios sociales y de ordenación del ámbito de la intervención social en la Comunidad Autónoma del País Vasco y contribuye a generar un contexto en el que cada vez tiene menos encaje una acción subvencional intensa y estable mediante convocatorias en las que unas instituciones públicas financian estructuras y actividades de otras instituciones públicas, en la medida en que el modelo de referencia es aquel en el que cada nivel institucional tiene sus propias responsabilidades e iniciativas, la financiación suficiente para llevarlas adelante y, como no podía ser de otra manera, su correspondiente autonomía para determinar sus estructuras, figuras profesionales, actividades y, ciertamente, su propia labor subvencional dirigida hacia las entidades del tercer sector de acción social que operen en el ámbito competencial y geográfico que corresponda en cada caso.

De igual modo, la legislación y planes correspondientes a las políticas transversales relacionadas con la inclusión social, las drogodependencias o la inmigración, entre otras, propenden también a una cada vez mayor claridad en la identificación de las responsabilidades de cada una de las instituciones del entramado público y a una colaboración entre ellas, cada vez más, en pie de igualdad, lo cual no quiere decir que se excluya que, en determinadas circunstancias y con determinadas condiciones, dicha colaboración interinstitucional pueda conllevar transferencia de fondos entre unas y otras instituciones.

Sea como fuere, la voluntad decidida del Departamento de Empleo y Asuntos Sociales del Gobierno

adierazitako moduan beste erakunde publiko batzuetara zuzendutako diru-laguntzen ekintza murrizteko eta eraldatzeko prozesua, ahal den neurrian, progresiboa eta erakunde horiekin adostua izatea, hain zuzen ere. Hori dela-eta, Agindu hau prozesu horren lehen urratsa dela ulertu behar da, diru-laguntzen lerro nagusiak bateratzeko, aldatzeko, hobetzeko eta gaur egunean Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailari dagozkion Zuzendaritzek aurrera eramandako esku-hartze sozialaren eremuko erakunde publikoetarantz egituratzeko jomuga baitu, eta horretaz gain, irabazi-asmorik gabeko gizarte-ekimeneko erakundeei bideratutako sustapen-lanerako erabili ohi den baliabide juridikotik bereizita dagoen beste baliabide juridiko batean kokatzen baititu.

Bestalde, jasotako laguntza ekonomikoen kudeaketa ahal den heinean sinplifikatzeko xedea ere badu Agindu honek, honako hau ulertzen baita: diru-laguntzen hartzaileak erakunde-egiturari dagozkionez (diru-laguntzak ematen dituen Administrazioa bezala), Administrazio publikoak erakunde pribatuekin harremanak dituen ezinbestean ezarri eta bete beharrekoak diren zenbait kontrol eta agindu ez-funtsezko bihurtzen dituzten hainbat kontrol eta aginduren eraginean daude jada.

Diru-laguntzak ematen dituzten administrazio publikoek eta hartzen dituzten entitateek Agindu honetan azaldutako erreferentziarako esparrua eta adierazitako erreferente juridiko eta estrategikoak onartu izanaren ondorioz, ez da beharrezkoa izango Agindu honetan jasotako laguntza ekonomikoak antolatzeko ezin hitzarmen sinatzea.

Diru-laguntzen Agindu hau Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina eta haren garapen-araudia onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuaren arau-esparruaren barruan dago.

Agindu honetan aurreikusitako hiru laguntza-lerroak honako hauek dira:

a) Gizarteratzera eta gizarte-ongizate eta -partaidetzara, bideratutako programa, proiektu eta jardueretarako, eta laguntza teknikoa edo administratiboa emateko langileentzako laguntzak, gizarte-zerbitzuen esparruan lehentasunez.

b) Talde teknikoak mantentzeko eta drogamendetasunen prebentzio komunitarioko udal-plan eta -proiektuak garatzeko laguntzak.

c) Immigrazioko langile teknikariak kontratatuzko eta kultura arteko bizikidetzaren arloko jardueretarako laguntzak.

Lehen lerroari dagokionez (Gizarteratze Zuzendaritza da haren kudeaketa-organoa), urtean behingo deialdi berri bat dugu, eta Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakundeetan langileak (teknikariak nahiz ad-

Vasco es que el proceso de reducción y transformación de su acción subvencional dirigida a otras instituciones públicas en el sentido que se acaba de expresar sea, en la medida de lo posible, progresivo y consensuado con dichas instituciones. Por ello ha de entenderse que la presente Orden constituye un primer paso en ese proceso, en la medida en que intenta agrupar, modificar, mejorar y articular las principales líneas de subvención hacia instituciones públicas en el ámbito de la intervención social que venían llevando adelante las Direcciones ahora pertenecientes al Departamento de Empleo y Asuntos Sociales, a la vez que las encuadra en un instrumento jurídico diferenciado de aquel que se utiliza para la labor de fomento dirigida a las entidades de iniciativa social sin ánimo de lucro.

Por otro lado, es voluntad de esta Orden simplificar en lo posible la gestión de las ayudas económicas a las que se refiere, en el entendido de que, al pertenecer las destinatarias de las subvenciones al entramado institucional, tanto como la Administración otorgante, ya están sometidas a prescripciones y controles que vuelven superfluas algunas de las prescripciones y controles que son de obligada imposición y cumplimiento cuando la Administración pública se relaciona con entidades privadas.

La aceptación del marco de referencia expuesto en esta Orden y de sus referentes jurídicos y estratégicos por parte de la Administración Pública otorgante y de las entidades receptoras de las subvenciones hace innecesaria la firma de convenios para la instrumentación de las ayudas económicas contempladas en esta Orden.

Esta Orden de subvenciones se atiene al marco normativo dado por el Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, que aprueba el texto refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, y su normativa de desarrollo.

Las tres líneas de ayudas previstas en esta Orden son:

a) Ayudas para personal de apoyo técnico y administrativo y programas, proyectos y actividades dirigidos a la inclusión, el bienestar y la participación social, preferentemente en el ámbito de los servicios sociales.

b) Ayudas para el mantenimiento de equipos técnicos y para el desarrollo de planes y proyectos municipales de prevención comunitaria de las drogodependencias.

c) Ayudas para la contratación de personal técnico en inmigración y para actividades en materia de convivencia intercultural.

En el caso de la primera línea, cuyo órgano de gestión es la Dirección de Inclusión Social, se trata de una nueva convocatoria anual cuyo objeto es apoyar la contratación de personal, técnico y admi-

ministrariak) kontratatzen laguntzeko xedea du, baita programak, proiektuak eta jarduerak finantzatzea ere, gizarteratze-alorreko, gizarte-ongizatearen alorreko eta gizarte-partaidetzaren alorreko prozesuetan gero eta eraginkorragoa izango den esku-hartze soziala sustatzeko. Gizarteratzea, gizarte-partaidetza edota gizarte-ongizatea faboratuko duen esku-hartze sozial hori toki-erakunde horiek kontratatutako langileek egiteaz gain, erakunde pribatuek ere egin dezaketenez gero, erakunde horietako kontratazioaren finantzaketarako laguntzen lerro honetan ere jasota daude.

Bigarren lerroa, bestalde (Droga Gaietako Zuzendaritzaren da haren kudeaketa-organoa), drogamendetasunen prebentzio komunitarioko udal-plan eta –proiektuak sortzeko, egikaritzeko eta ebaluatzeko langile teknikariak eta jarduerak finantzatzean datza, gure lurraldeko esku-hartze sozialerako erakunde-egituraren zati gisa.

Hirugarren lerroa, azkenik (Immigrazio Zuzendaritza da haren kudeaketa-organoa), EAEko erakunde-egituraren immigrazioak duen errealitateari arreta handiagoa eta hobeagoa ematen lagunduko duten langile teknikariak eta jarduerak finantzatzean datza, eta oro har, kultura arteko bizikidetzak faboratuko duten esku-hartze sozialeko jarduerak egitean.

Horren guztiaren ondorioz, honako hau

EBATZI DUT:

I. KAPITULUA  
XEDAPEN ERKIDIAK

**1. artikulua.**– Xedea.

1.– Agindu honen xedea da gizarteratzerak eta gizarte-ongizate eta partaidetzara bideratutako langileak eta jarduerak finantzatzeko Eusko Jaurlaritzak Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren bitartez erakunde publikoei zuzendutako laguntza ekonomikoak arautzea eta 2010. urterako deialdia egitea, betiere langile eta jarduera horiek honako esparru hauetakoak badira lehentasunez: gizarte-zerbitzuak, droga-mendetasunen prebentzio komunitarioa eta horien arriskuak eta kalteak murriztea, eta immigrazioa eta kultura arteko bizikidetzak.

2.– Laguntza hauen onuradunak izango dira, 13., 18. eta 23. artikuluetan ezarritakoari jarraiki, tokiko udalerrriak, mankomunitateak, partzuergoak, agentziak eta udalaz gaindiko bestelako erakundeak, edota udalerrien elkarteak, Euskal Autonomia Erkidegokoak, betiere udalen eta foru-aldundien premiei erantzuteko xedea badute.

3.– Kontratutako pertsonalaren jarduna betearazteko edo jarduerak gauzatzeko epea 2010eko ekitaldia da.

nistrativo, así como la financiación de programas, proyectos y actividades, en las entidades locales de la Comunidad Autónoma del País Vasco, para impulsar una intervención social cada vez más eficaz para los procesos de inclusión, el bienestar y la participación social. En la medida en que dicha intervención social favorecedora de la inclusión, la participación o el bienestar social, además de ser realizada por personal contratado por dichas entidades locales, también puede ser llevada a cabo por entidades privadas, también son contempladas en esta línea ayudas para la financiación de la contratación de dichas entidades.

En el caso de la segunda línea, cuyo órgano de gestión es la Dirección de Drogodependencias, se trata de financiar personal técnico y actividades para la elaboración, ejecución y evaluación de planes y proyectos municipales de prevención comunitaria de drogodependencias, como parte del dispositivo institucional para la intervención social en el territorio.

En el caso de la tercera línea, cuyo órgano de gestión es la Dirección de Inmigración, se trata de financiar personal técnico y actividades que contribuyan a una mayor y mejor atención a la realidad de la inmigración en el entramado institucional vasco y, en general, a la realización de actividades de intervención social favorecedoras de la convivencia intercultural.

En virtud de todo ello,

RESUELVO:

CAPÍTULO I  
DISPOSICIONES COMUNES

**Artículo 1.**– Objeto.

1.– El objeto de la presente Orden es regular y convocar para el año 2010 las ayudas económicas a entidades públicas por parte del Gobierno Vasco, a través de su Departamento de Empleo y Asuntos Sociales, para la financiación de personal y actividades dirigidos a la inclusión, el bienestar y la participación social, preferentemente en el ámbito de los servicios sociales; la prevención comunitaria y la reducción de riesgos y daños de drogodependencias; y la inmigración y convivencia intercultural.

2.– Serán beneficiarias de estas ayudas, en los términos que se establecen en los artículos 13, 18 y 23, los municipios, mancomunidades, consorcios, agencias y otras entidades supramunicipales de carácter local o agrupaciones de municipios de la Comunidad Autónoma del País Vasco y, en aquellos casos en que tengan como finalidad responder a las necesidades de los ayuntamientos, las diputaciones forales.

3.– El plazo de ejecución de la actuación del personal contratado o de ejecución de las actividades es el ejercicio 2010.

**2. artikulua.**– Erreferentziazko irizpideak.

1.– Aurreikusitako laguntzen xede diren taldeek, programek, proiektuek eta jarduerak indarreko legediarekin bat etorri beharko dute, eta baita Agindu honetan jasotako sektore-esparruekin (gizarterbitzuak) eta zeharkako esparruekin (gizarteratzea, droga-mendetasunak, immigrazioa eta kultura arteko bizikidetzak) lotutako esku-hartzeko planetan kokatuta egon ere, erreferentzia nagusiak honako hauek direla kontuan hartuz:

a) 12/2008 Legea, abenduaren 5koa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa.

b) 18/2008 Legea, abenduaren 23koa, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzekoa.

c) 18/1998 Legea, ekainaren 25koa, drogamenpekotasunen arloko aurrezaintza, laguntza eta gizarteratzeari buruzkoa.

2.– Horrela, honako erreferentziazko irizpide hauek bitartez zuzendutako eskabideei eman ahal izango zaizkie diru-laguntzak:

a) Prebentzioa: hasteko, lehenetsuna arretarako premia agertzea, luzatzea edo areagotzea saihesten duen esku-hartzearen alde. Prebentzio-maila guztiak biltzen ditu: unibertsala, selektiboa, zehaztua eta adierazia. Arriskuak eta kalteak murrizteko ikuspegia bere gain hartzen du, jendearen egoeran edozein ondorio negatibo (egungoak edota potentzialak) minimizatzea biltzen duena.

b) Ikuspegi komunitarioa: familia- eta komunitate-sareetan oinarritzen den eta haiek babesten dituen esku-hartzeak izango du lehenetsuna, betiere hurbiltasunari begira.

c) Pertsonalizazioa: arreta hobekien molda edo egoki dadin lortzeko modu malgua bilatzea, arreta hori jasotzen duen gizabanako bakoitzaren premia, eskaera eta igurikiminetara molda edo egoki dadin, hain zuzen ere.

d) Sinergia: doikuntza handiena, jarraitutasun handiena, arintasun handiena eta efektu biderkatzailea pertsonak jasotzen dituen prestazio eta zerbitzuen artean eta horiek ematen dituzten sistema eta sareen artean.

e) Pertsonen eta taldeen autonomia, parte-hartzea eta ahalduntzea sustatzea: lan egitea pertsonen gaitasun onenak gara ditzaten eta erabaki dezaten euren gain eraginik duen guztiari buruz, al bait gehien.

f) Normalizazioa: jendea kulturalki arauemaileak edo sozialki balioetsiak diren inguruneak, jarduerak, baliabideak eta aukerak eskaintzea, eta aldi berean, giza aniztasuna onartzea, errespetatzea eta indartzea.

g) Gizarteratzea: hain murriztaileak ez izateaz gain al bait irisgarrienak diren babesak, inguruneak, jarduerak, zerbitzuak eta baliabideak eskaintzea, hau da, ko-

**Artículo 2.**– Criterios de referencia.

1.– Los equipos, programas, proyectos y actividades objeto de las ayudas previstas deberán ajustarse a la normativa vigente y encuadrarse en los planes de intervención relacionados con los ámbitos sectoriales (servicios sociales) y transversales (inclusión social, drogodependencias, inmigración y convivencia intercultural) a los que se refiere esta Orden, siendo las principales referencias las siguientes:

a) Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales.

b) Ley 18/2008, de 23 de diciembre, para la Garantía de Ingresos y para la Inclusión Social.

c) Ley 18/1998, de 25 de junio, sobre prevención, asistencia e inserción en materia de drogodependencias.

2.– Así, se podrán conceder las subvenciones a aquellas solicitudes que se rijan por los siguientes criterios de referencia:

a) Prevención: preferencia, en principio, por aquella intervención que evite que aparezca, se prolongue o se intensifique la necesidad de atención. Incluye todos los niveles de prevención: universal, selectiva, determinada e indicada. Asume el enfoque de reducción de riesgos y daños, que busca minimizar cualquier tipo de efecto negativo actual o potencial en la situación de las personas.

b) Enfoque comunitario: preferencia por la intervención que, en clave de proximidad, se apoye en las redes familiares y comunitarias y les de soporte.

c) Personalización: búsqueda flexible de la mayor adecuación o adaptación de la atención a las necesidades, demandas y expectativas de cada uno de los individuos que la recibe.

d) Sinergia: búsqueda del mayor ajuste, la mayor continuidad, la mayor fluidez y el efecto multiplicador entre las diferentes prestaciones y servicios que recibe la persona y entre los diferentes sistemas y redes que los proporcionan.

e) Promoción de la autonomía, la participación y el empoderamiento de las personas y los grupos: trabajar para que las personas desarrollen las mejores capacidades y decidan, en la mayor medida posible, sobre todo lo que les afecta.

f) Normalización: ofrecer a las personas los entornos, actividades, recursos y oportunidades culturalmente normativas o socialmente valoradas, a la vez que se reconoce, respeta y potencia la diversidad humana.

g) Integración: ofrecer los apoyos, entornos, actividades, servicios y recursos menos restrictivos y más accesibles que sea posible, es decir, los que represen-

munitatearekiko harreman handiena sortzen dutenak; era berean, komunitatean ere esku hartu beharko da, informazioko, sentsibilizazioko eta diskriminazioaren aurkako borrokari begira.

h) Kudeaketaren etengabeko hobekuntza, plan-gintza estrategikoko, komunikazio integratzaileko, jakintzaren eraikuntzako, enpleguaren kalitatearen hobekuntzako eta inpaktuaren ebaluazioko tresnak sartuz, eta eraginkortasunik ezak eta bikoiztasunak saihestuta.

### **3. artikulua.**– Onuradunen betebeharrak.

1.– Diru-laguntzen onuradun diren Administrazioen betebeharra izango da Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak emandako laguntza ekonomikoarekin batera beren gain hartutako kontratazioari eta ordainsariari dagozkien langileen gaitasun eta prestakuntza tekniko eta profesionala zehaztea eta egiaztatzea.

2.– Orobat, adierazitako entitateen erantzukizuna da Agindu honetan aurreikusitako laguntza ekonomikoek finantzatzen lagundutako jarduerak indarreko araudiarekin bat datozela eta erreferentziazko arau eta planetan kokatuta daudela zaintzea, jarduera horiek Administrazio publikoek zuzenean kontratatutako langileek gauzatzen dituztenean nahiz horretarako kontratatutako erakunde pribatuek gauzatzen dituztenean.

3.– Edonola ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 50.2 artikuluan ezarritako betebeharrak alde batera utzi gabe, laguntzen onuradunak izango diren erakundeek Agindu honen 8. artikuluan aurreikusitako dokumentazio justifikatzailea Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailera igortzeko betebeharra izango dute, eta horretaz gain, diruz lagundutako programa, proiektu eta jardueren xedea edo izaera nabarmen aldatuko dituen edozein jazoera jakinarazi beharko dute, horien jarraipenean eta geroagoko ebaluazioan Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailarekin lankidetzan aritzeaz gain.

### **4. artikulua.**– Diru-baliabideak.

1.– Agindu honen bitartez araututako kontratazio eta jardueren 2010eko finantzaketa, zehazki, 12.575.000 euro, diru-laguntzen hiru lerroetarako aurreikusitako aurrekontu-partidak batzearen ondoriozkoa da, Agindu honen 14., 19. eta 24. artikuluetan aurreikusitakoari jarraiki.

2.– Agindu honetan aurreikusitako sei laguntza-azpillerotako bakoitzerako esleitutako aurrekontu-kredituaren zenbateko osoa handitu ahal izango da eskatu diren laguntzen guztizko zenbatekoa kontuan izanik, Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren beste laguntza-lerro batzuk egikaritu ondoren agortu gabe geratzen diren aurrekontu-baliabideen arabera, eta betiere diru-laguntzen ebazpena eman baino lehen.

ten mayor contacto con la comunidad que, a su vez, ha de ser objeto de intervención en clave de información, sensibilización y lucha contra la discriminación.

h) Mejora continua de la gestión, incorporando herramientas de planificación estratégica, comunicación integradora, construcción de conocimiento, mejora de la calidad del empleo y evaluación de impacto, de modo que se eviten ineficiencias y duplicidades.

### **Artículo 3.**– Obligaciones de las entidades beneficiarias.

1.– Es obligación de las entidades beneficiarias de las subvenciones determinar y comprobar la cualificación y competencia técnica y profesional del personal cuya contratación y remuneración asumen con la ayuda económica prestada por el Departamento de Empleo y Asuntos Sociales del Gobierno Vasco.

2.– Asimismo, es obligación de las mencionadas entidades velar por que las actividades a cuya financiación contribuyan las ayudas económicas previstas en esta Orden se ajusten a la normativa vigente y se encuadren en las normas y planes de referencia, tanto si se realizan por parte de personal directamente contratado por las Administraciones públicas como si se desarrollan por entidades privadas contratadas al efecto.

3.– En todo caso, sin perjuicio de las correspondientes obligaciones establecidas en el artículo 50.2 del Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, las entidades beneficiarias de las ayudas quedan obligadas a remitir al Departamento de Empleo y Asuntos Sociales la documentación justificativa prevista en el artículo 8 de la presente Orden y a comunicar cualquier eventualidad que altere sustancialmente el objeto o naturaleza de los programas, proyectos o actividades subvencionadas, así como a colaborar con el Departamento de Empleo y Asuntos Sociales en su seguimiento y la consiguiente evaluación.

### **Artículo 4.**– Recursos económicos.

1.– La financiación en 2010 de las contrataciones y actividades reguladas en la presente Orden, de un total de 12.575.000 euros, resulta de la suma de las partidas presupuestarias previstas para sus tres líneas subvencionales, en los términos previstos en los artículos 14, 19 y 24 de esta Orden.

2.– El importe global del crédito presupuestario consignado para cada una de las seis sublíneas de ayudas previstas en esta Orden podrá ser incrementado teniendo en cuenta la cuantía total de las ayudas solicitadas, en función de las disponibilidades presupuestarias no agotadas que resulten de la ejecución de otras líneas de ayudas del Departamento de Empleo y Asuntos Sociales y con carácter previo a su

Dagokion zuzendariaren ebazpenaren bidez jakinaraziko da inguruabar hori.

**5. artikulua.**– Eskaerak aurkeztea.

1.– Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

2.– Eskaerak eskabide normalizatu bidez egingo dira. Eskabide hori I. eranskin gisa erantsi zaio Agindu honi eta [www.euskadi.net](http://www.euskadi.net) webgunean dago eskuragarri: tramiteak/dirulaguntzak. Eskabide horren atal guztiak behar bezala bete beharko dira eta erakunde eskatzailea legez ordezkatzeko duen pertsona sinatu beharko du; horretaz gain, adierazitako eranskin baten kopia bat aurkeztu beharko da euskarri informatikoan (ahal bada, CDan).

3.– Eskatzaile bakoitzak langileak finantzatzeko laguntza-eskabide bat eta jarduerak gauzatzeko laguntza-eskabide bat aurkeztu ahal izango ditu agindu honetan jasotako dirulaguntzen azpilarro bakoitzerako, eta dirulaguntza eskatzeko xede diren programa, proiektu eta jarduerak taldekatu beharko ditu eskabide bakoitzean. Programa, proiektu edo jarduera berbera dirulaguntzen xede diren lerroetako bakar batean sartu ahal izango da soilik.

4.– Eskabide-orria dagokion dirulaguntzen lerroari dagokion kudeaketa-organora bidaliko da, eta lerro horretan aurreikusten den dokumentazioarekin batera, Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailera (Donostia kalea, 1- 01010 Gasteiz) igorri beharko da Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean aurreikusitako moduan (Lege hori urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatu zuen).

Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan aurreikusitakoa aplikatuko da.

5.– Dirulaguntzarako eskabide-orriarekin batera (I. eranskina) aurkeztu beharko dira, batetik, dirulaguntzen azpilarro bakoitzerako eskatzen den dokumentazioa (I.A, I.B eta I.C) eta, bestetik, laguntzari eman nahi zaion helburuaren (langileen kontratazioa edo ordainsaria, jarduerak gauzatea, eta abar) identifikazio- eta garapen-memoria, Agindu honen II. eranskin gisa erantsitako eta behar bezala betetako eskabide normalizatu bidez, [www.euskadi.net](http://www.euskadi.net) webgunean eskuragarri dagoena: tramiteak/dirulaguntzak. Paperean aurkezteaz gain, eranskin horren kopia bat aurkeztu beharko da euskarri informatikoan (ahal bada, CDan).

6.– Aurkeztutako eskabideak eta haren dokumentazioak eskatutako eskakizunak betetzen ez badituzte,

resolución. De tal circunstancia se dará publicidad mediante Resolución del Director o Directora correspondiente.

**Artículo 5.**– Presentación de las solicitudes.

1.– El plazo para la presentación de solicitudes será de un mes a partir del día siguiente al de la publicación de la presente Orden en el Boletín Oficial del País Vasco.

2.– Las solicitudes se realizarán mediante una instancia normalizada que se adjunta como anexo I a esta Orden, disponible en [www.euskadi.net/tramites/ayudas y subvenciones](http://www.euskadi.net/tramites/ayudas-y-subsunciones). Esta instancia de solicitud, debidamente cumplimentada en todos sus extremos y firmada por la persona que represente legalmente a la entidad solicitante, deberá ir acompañada de una copia del anexo mencionado en soporte informático (preferentemente CD).

3.– Cada solicitante sólo podrá presentar una solicitud de ayuda para la financiación de personal y una para la realización de actividades en cada una de las sublíneas subvencionales contempladas en esta Orden, agrupando en cada solicitud los diferentes programas, proyectos y actividades para los que solicita subvención. Un mismo programa, proyecto o actividad sólo podrá incluirse en una de las líneas objeto de subvención.

4.– La instancia de solicitud será dirigida al órgano de gestión correspondiente a la línea subvencional de la que se trate, acompañada de la documentación prevista en ella y deberá enviarse al Departamento de Empleo y Asuntos Sociales del Gobierno Vasco, sito en la calle Donostia-San Sebastián, 1, 01010 Vitoria-Gasteiz, en la forma prevista en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, modificada por la Ley 4/1999, de 13 de enero.

Será de aplicación lo previsto en el artículo 38.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

5.– La instancia de solicitud de la subvención (anexo I) deberá ir acompañada de la documentación exigida para cada una de las sublíneas subvencionables (anexo I.A, I.B y I.C) junto a una memoria de identificación y desarrollo del destino deseado para la ayuda (contratación o remuneración de personal, realización de actividades...), mediante instancia normalizada que se adjunta como anexo II de esta Orden, convenientemente cumplimentada, disponible en [www.euskadi.net/tramites/ayudas y subvenciones](http://www.euskadi.net/tramites/ayudas-y-subsunciones). Además, de en papel, se deberá adjuntar una copia de este anexo en soporte informático (preferentemente CD).

6.– Si la solicitud presentada y su documentación no cumplieren los requisitos exigidos, se requerirá a

erakunde eskatzaileari jakinaraziko zaio eta hamar egun baliioduneko epea emango zaio dokumentazioa konpontzeko; hori egin ezean, eskaeran atzera egiten duela ulertuko dela jakinaraziko zaio, Ebazpena –Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen (urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatu zuen) 71.1 eta 42. artikuluetan ezarritakoaren arabera eman beharrekoa– eman ondoren.

**6. artikulua.**– Datuen babesa.

Agindu honetan aurreikusitako laguntzak eskatzerakoan aurkezten diren datuak fitxategi automatizatu batean sartuko dira, Datu Pertsonalak babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoaren eraginpean dagoena. Fitxategi horretan bildutako datuak ezin izango zaizkie hirugarren pertsonari edo erakundeei laga, eta fitxategia Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak erakunde eskatzailei ematen dizkien laguntzak kudeatzeko baino ez da erabiliko. Nahi badutenek, Lege horretan aurreikusten diren sartzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko eskubideez baliatu daitezke, diru-laguntzen erro bakoitza kudeatzen duen organoari idazki bat igorri.

**7. artikulua.**– Laguntzaren zenbatekoa eta ordainketa.

1.– Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak eskatutako diru-laguntzaren helburu den jardueraren guztizko aurrekontuaren % 75 finantzatu ahal izango du gehienez, Agindu honetako diru-laguntzen lehen eta hirugarren erroetan jasotako langile teknikari eta administrariak kontratatzearen kasuan izan ezik, arestian adierazitako ehuneko gainditu ahal izango baita kasu horietan, Agindu honetako 15.1 eta 24.3 artikuluan xedatutakoari jarraiki.

2.– Ordainketa zatika egingo da, % 80 ematen den unean ordainduko da eta gainerako % 20a, berriz, diruz lagundutako jardueraren frogagiriak aurkeztu ondoren, jardueraren amaiera-egunetik zenbatzen hasi eta bi hilabeteko epean.

**8. artikulua.**– Diru-laguntzen justifikazioa.

1.– Erakunde onuradunek honako dokumentazio hau aurkeztu beharko dute diruz lagundutako jardue-  
ra amaitu eta bi hilabeteko epean:

a) Diruz lagundutako kontratazioaren eta/edo jardueraren deskribapen- eta ebaluazio-memoria, eredu normalizatuaren arabera. Eredu hori Agindu honi erantsi zaio III. eranskin gisa ([www.euskadi.net](http://www.euskadi.net) webgunean dago eskuragarri: [tramiteak/dirulaguntzak](http://www.euskadi.net/tramiteak/dirulaguntzak)), eta atal guztiak behar bezala beteko dira.

Memoria horretan justifikazio-kontu bat, hau da, gastua -Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak emandako zenbatekoaren parekoa– egiaztatzen duten dokumentu guztiak biltzen dituen erantzukizun-aitorpena jaso beharko da. Aitorpen horretan dokumentuaren

la entidad solicitante para que subsane la documentación en el plazo de diez días hábiles, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistida de su petición, previa Resolución que deberá ser dictada en los términos previstos en los artículos 71.1 y 42 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, modificada por la Ley 4/1999, de 13 de enero.

**Artículo 6.**– Protección de datos.

Los datos que aporten al solicitar las ayudas previstas en esta Orden serán incorporados para el tratamiento de un fichero automatizado sujeto a lo dispuesto en la Ley Orgánica 15/1999, de Protección de Datos de Carácter Personal. El uso de dicho fichero, cuyos datos no serán objeto de cesión a terceras personas u organizaciones, se circunscribe al uso exclusivo de la gestión de las ayudas a las organizaciones solicitantes por parte del Departamento de Empleo y Asuntos Sociales del Gobierno Vasco. Quienes lo deseen pueden ejercitar los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición, previstos por la Ley, dirigiendo un escrito al órgano gestor de cada una de las líneas subvencionales.

**Artículo 7.**– Cuantía y pago de la subvención.

1.– El Departamento de Empleo y Asuntos Sociales podrá financiar hasta un 75% del presupuesto total de la actividad para la que se solicita subvención, excepto en el caso de la contratación de personal técnico y administrativo en la primera y la tercera de las líneas subvencionales de esta Orden, en cuyo caso podrá superarse ese porcentaje, tal y como se estipula en los artículos 15.1 y 24.3 de la presente Orden.

2.– El pago será fraccionado, abonándose el 80% una vez concedida la subvención y el 20% restante, previa presentación de los documentos justificativos de la actividad subvencionada, en el plazo de dos meses a partir de la fecha de finalización de la actividad.

**Artículo 8.**– Justificación de las subvenciones.

1.– Las entidades beneficiarias deberán presentar, en el plazo de dos meses a partir de la finalización de la actividad subvencionada, la siguiente documentación:

a) Memoria descriptiva y de evaluación de la contratación y/o actividad subvencionada, según modelo normalizado que se adjunta a esta Orden como anexo III (disponible en [www.euskadi.net/tramites/ayudas](http://www.euskadi.net/tramites/ayudas) y subvenciones), debidamente cumplimentado en todos sus extremos.

En esta memoria se deberá incluir la cuenta justificativa, que es una declaración responsable que recoge una relación de todos los documentos acreditativos del gasto por el importe recibido del Departamento de Empleo y Asuntos Sociales, señalando naturaleza



nondik norakoa, identifikazioa, kontzeptua, igorlea, data, zenbatekoa eta jarduerari egozten zaion ehune-koa adierazi beharko dira.

b) Erakunde onuradunaren organo eskudunaren ziurtagiria, diruz lagundutako jarduerarako edota kontrataziorako bestelako finantzaketa-iturririk 2010ean izan ote duen egiaztatzen duena.

c) Jardueraren inguruko dokumentazio publikoa, hala nola, prentsako ebakinak edo diruz lagundutako jardueraren garapenean sortutako materialetako bakoitzaren aleak, sortutako hizkuntza desberdinetan eta euskarri fisiko zein magnetikoan.

2.- Emandako laguntzaren kontura egindako gastuen justifikazioa egiteko ondoko dokumentuak onartuko dira:

2.1.- Langile teknikari edo administrariak kontratazearen ondoriozko gastuak justifikatzeko:

a) Entitate onuradunaren gastua kontrolatzeko organo eskudunak emandako ziurtagiria, kontratatutako pertsonen identifikazio datuez eta datu-akademikoez gain, kontratatutako denbora eta kontrataziotik eratorritako diru-kostu osoa jasotzen dituen.

b) Ordainsarien ordainagiriak, eredu ofizialera eta Gizarte Segurantzaren kotizazio-buletin ofizialera egokituak.

c) Zerbitzua kontratatuta duten erakundeek kontratatutako erakundearekin formalizatutako kontratuen kopia bat eta dagozkion ordainagiriak aurkeztu beharko dituzte. Kontratuan agertzen ez bada, honako informazio hau banakatu beharko da:

- Kontratutako pertsonen titulazioa edota tituluaren fotokopia konpultsatua.

- Kontratutako pertsonen lan-kostua (Gizarte Segurantzako gastuak barne).

2.2.- Jarduerak gauzatzaren ondoriozko gastuen justifikaziorako:

a) Erakunde onuradunaren organo eskudunaren ziurtagiria, diruz lagundutako jardueraren ondoriozko guztizko kostu ekonomikoa jasoko duena.

b) Erakunde onuradunaren izenean egindako fakturak, gastuei dagozkienak. Baliagarria izateko, faktura orok 2010ekoa beharko du izan.

c) Ziurtagirien edo banku-zorpetzeagatik kargu-dokumentuen bidez justifikatutako ordainagiriak, betiere finantza-erakundeek eginak badira eta faktura bati dagozkion datuak biltzen badituzte, zenbakia eta seriea izan ezik.

3.- Diru-laguntza behar bezala aplikatu ote den egiaztatzeko, finantzatutako jardueraren gastuaren egiaztagiria, diruz lagundutako erakundeen zorizko lagin bat oinarri hartuta, laguntza eman eta hurrengo urtean egiaztatu ahal izango dira, Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak, Kontrol Ekonomikoko Bulegoak

del documento, identificación, emisor, concepto, fecha, cuantía y porcentaje de imputación a la actividad.

b) Certificación del órgano competente de la entidad beneficiaria sobre la existencia o no de otras fuentes de financiación para la actividad o contratación subvencionada en 2010.

c) Documentación de carácter público relacionada con la actividad, como recortes de prensa o ejemplares de las diversas versiones lingüísticas, en soporte físico o magnético, de cada uno de los materiales generados en el desarrollo de la actividad subvencionada.

2.- Para la justificación de los gastos realizados con cargo a la ayuda concedida se darán por válidos los siguientes documentos:

2.1.- Para la justificación de los gastos derivados de la contratación de personal técnico o administrativo:

a) Certificación del órgano competente para el control del gasto de la entidad beneficiaria, en la que constarán los datos identificativos y académicos de las personas contratadas y el tiempo y el coste económico total derivado de la contratación.

b) Recibos de salarios ajustados al modelo oficial y boletines oficiales de cotización a la Seguridad Social.

c) Aquellas entidades que tengan contratado el servicio, deberán presentar una copia del contrato con la entidad contratada y los correspondientes justificantes de pago. En el caso de que no aparezca en el contrato, deberá desglosarse la siguiente información:

- Titulación o fotocopia compulsada del mismo de las personas contratadas.

- Coste laboral (incluidos gastos de Seguridad Social) de las personas contratadas.

2.2.- Para la justificación de los gastos derivados de la realización de actividades:

a) Certificación del órgano competente de la entidad beneficiaria, en la que constará el coste económico total derivado de la actividad subvencionada.

b) Las correspondientes facturas emitidas a nombre de la entidad beneficiaria. Toda factura para ser válida deberá estar expedida durante el 2010.

c) Los justificantes mediante certificación o documentos de cargo por adeudamiento bancario que, expedidos por entidades financieras, contienen los datos propios de una factura a excepción del número y serie.

3.- Con el fin de verificar la adecuada aplicación de la subvención, los justificantes de gasto de la actividad financiada podrán ser objeto de comprobación sobre una muestra aleatoria de las entidades subvencionadas, en el año siguiente al de la concesión de la ayuda, sin perjuicio de las demás acciones de inspec-

edota Kontuen Euskal Epaitegiak, legez ezarritako epearen barruan, egokitzat jotako gainerako ikuskapenak, jarraipenak eta kontrolak egin ditzaketela alde batera utzi gabe.

**9. artikulua.**– Kudeaketa, ebazpena eta errekurtsioak.

1.– Diru-laguntzen lerro bakoitzerako espezifikoki zehazten den Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren Zuzendaritza izango da Agindu honetan araututako diru-laguntzak kudeatu eta ebazteko eskumena izango duen organoa.

2.– Diru-laguntzen lerro bakoitzerako, kudeatu eta ebazteko eskumena duen zuzendariak Balioespen Batzorde bat hautatuko du, eta Batzorde horrek diru-laguntzen ebazpen-proposamena emango du.

3.– Kide anitzeko Organo hori gutxienez hiru pertsonak eta gehienenez sei pertsonak osatuko dute, betiere Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren Zuzendaritzetako goi-karguak edo funtzionario edo langileak badira eta gizarte-gaietako arloan, drogamendetasunen arloan, gizarteratzearen arloan eta immigrazioaren eta kulturartekotasunaren arloan eskumena badute, Zuzendaritza horietako bakoitzak proposatuta. Beharrezko neurriak hartuko dira Balioespen Batzordean bi sexuen presentzia orekatua egon dadin lortzeko. Kasu bakoitzean, diru-laguntzen lerroa kudeatzen duen Zuzendaritzako funtzionario edo langile batek jardungo du Kide anitzeko Organoaren idazkari gisa. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da Organo horien osaera.

4.– Agindu honetan aurreikusitako diru-laguntzak emateko eta, hala badagokio, ukatzeko, Agindu honetan aurreikusitako laguntzen azpillerro bakoitzaren ardura duen zuzendariak Ebazpena emango du, eta erakunde eskatzaileei banan-banan jakinaraziko zaie ebazpen hori. Emakida-ebazpenak eta horien aldaketak (halakorik egonez gero), Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dira, eta bertan erakunde onuraduna, diruz lagundutako kontzeptuak eta horiei dagozkien zenbatekoak jasoaraziko dira. Era berean, ukatutako eskaerak jasoaraziko dira, ukapenaren arrazoia adierazita.

5.– Ebazpen horrek administrazioarekiko bidea agortzen ez duenez, interesdunek gora jotzeko errekurtsioa aurkez diezaioke kasu bakoitzari dagokion sailburuordeari, hilabeteko epean jakinarazpen-egunaren biharamunetik zenbatzen hasita.

6.– Ebazteko eta ebazpenak jakinarazteko gehieneko epea lau hilabetekoa izango da, deialdi-aginduak argitaratzen diren egunaren biharamunetik zenbatzen hasita, eta epe hori igaro eta ebazpenik jakinarazi ez bada, diru-laguntzarako eskabidea ukatuz hartu ahal izango da, esanbidezko Ebazpena eman beharra bazter utzi gabe, eta hori guztia Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Adminis-

ción, seguimiento y control que procedan, por parte del Departamento de Empleo y Asuntos Sociales, la Oficina de Control Económico o el Tribunal Vasco de Cuentas, en el plazo legalmente establecido.

**Artículo 9.**– Gestión, resolución y recursos.

1.– El órgano competente para la gestión y resolución de las subvenciones reguladas en la presente Orden será la Dirección del Departamento de Empleo y Asuntos Sociales que específicamente se determina para cada una de las líneas de subvenciones.

2.– Para cada línea subvencional, la Directora o Director competente para la gestión y resolución, designará una Comisión de Valoración, que formulará la propuesta de resolución de las subvenciones.

